

4

## Komunikazioaren teoriaren oinarriak eredu sistemikotik

Komunikazioaren teoria oinarritzeko garaian, Ludwig Von Bertalanffy-ren sistemen teoria orokorra kontuan hartu beharra dago. Komunikazio-gertaerak sistema oso bezala aztertu behar dira, eta ez gertaera isolatu bezala. Sistemaren osagai ezberdinen arteko elkarreagina eta sistema ezberdinen arteko elkarreagina aztertu behar da komunikazioan. Osagai eta sistema ezberdinak maila ezberdinetan hierarkikoki antolatua egoten dira. Adibidez, familia sistema azpisisistematan antolatua dago. Azpisisistema horietako bakoitzak bere elkarreagin mota du.

Banakako osagaien berezitasunengatik baino gehiago maila ezberdinetako osagai ezberdinen (edo sistema ezberdinen) elkarreagin iraunkorragatik bereizten da errealitatea. Elementuen arteko harremanen multzoak dira sistemak. Sistemako elementuen arteko eta sistema ezberdinen arteko elkarreaginaren azterketan zentratu behar du ikerketak. Sistemen teoriatik begiratuta, hierarkikoki ordenaturiko sistemen arteko harremana bezala ulertzen da errealitatea. Terapia arloan ere arreta ez da pertsonarengan jartzen, eskuhartzen duen harreman sistemetan baizik: familia, eskola, lantokia, lagun taldea...

Jarduera autogidatua eta proaktiboa da sistema bizien ezaugarri nagusienetakoa; erreaktibitateak bigarren mailako garrantzia hartzen du. Gizakia ez da inguruneke presioen arabera jokatzeko duen automata programatua, ingurunearekin etengabeko elkarreaginean dagoen sistema dinamikoa baizik. Sistema bat bere testuinguru egokian kokatu behar da, jarraipen hierarkiko batean; hierarkia horren barnean sistema bakoitza goragoko beste sistema baten osagaia da.

Freuden teoria psikoanalitikoak psikebarneko indarren elkarreagin hipotetikoaren ondoren bezala ikusten du jokaera. Indar horiek fisikaren arloko

energiaren kontserbazio eta transformazioaren legeak obeditzen dituzte. «*Gizabanakoaren eta ingurunearen arteko elkarreaginari oso arreta gutxi jarri zitzaion eremu psikoanalitikoan, eta juxtu hementxe datza informazioaren elkartrukea, hots, komunikazioa behar-beharrezkoa den gunea*» (Watzlawick, 1963:30). Eta jarraian, adibide hau ematen du Watzlawickek: bidaiariaren oinak harri batekin estropezu egiten badu, oinetik harrira transferitzen da energia; harriaren desplazamendua eta posizioa, alde batetik, transferitu diogun energiaren araberakoa eta, bestaldetik, harriaren formaren, pisuaren eta gainazalaren araberakoa izango da. Baina, gizakiak zakur bat jotzen badu, harri bat jo ordez, hark jauzi egin eta horzka egin diezaioke. Kasu horretan, ostikadaren eta horzkadaren arteko erlazioa oso desberdina da. «*Zakurrak bere metabolismo propiotik hartzen du erreakzio energia eta ez ostikadatik. Transferitzen dena ez da ia energia, informazioa baizik. Beste hitz batzuetan esanda, txakurrari zerbait komunikatzen dion jokaera bat da ostikada, eta zakurrak jokaerazko beste komunikazio batez erantzuten dio komunikazio horri. Hauxe da oinarrian psikodinamika freudiarraren eta komunikazioaren teoriaren arteko diferentzia*» (Watzlawick, 1963:30).

Sistemak, bestalde, irekiak edo itxiak izan daitezke. Sistema «irekian» materialen, energiaren edo informazioaren elkartruke bat dago. Sistema «itxian» ez dago informazioaren sarrera edo irteerarik. Sistema itxiak entropiari lotuak daude, desordenurantzko joera dute. Sistema irekietan prozesu negentropiko bat gertatzen da, ordenuaren gehitzea dago. Sistema irekiak gai dira beren egituren funtzionamendu-ordenua ziurtatzeko eta beren ingurunean bizirauteko. Honela, adibidez, haur baten eboluzio patologikoa ziurrago gertatuko da informazioaren elkartrukea behaztopatua dagoen familia batean. Bestalde, norbanakoaren, familiaren eta gizarte ingurunearen mugak ezartzen eta hautematen direnean, entropia gutxitu egiten da, negentropia gehituz. Kasu honetan, kanpotik datorren informazioa selekzionatu eta asimilatu egiten du familiak, bere kideek errealtatea hobeto menpera dezaten.

Sistema organiko guztiak irekiak dira; bai sistema biologikoak, bai psikologikoak. Gizakien eta beste sistema irekien arteko aldea honako hau da: gizakiak gai dira beren sistema propioak sortzeko eta beren ingurunearekiko harremanetan mugak ezartzeko. Giza sistemen arteko harremanak gehiago dira informaziozkoak energiakoak baino. Energiaren elkartrukea baldin badago ere, dagoena, batez ere, informazioaren transferentzia da. Shannon eta Weaverren informazioaren eredia agertzean esan dugun bezala, aztertzen ari garenen ziurgabetasuna gutxitzea lortzen duena da informazioa. Analisisiko elementuen kopurua gutxitzen duen hura, aldaketa ahalbidea gutxitzen duen hura da informazioa. Negentropia, mezu kodifikatu batek duen informazio antolatu eta koherentearen kantitatea.

Honela bada, sistemen teoria orokorraren arabera, gizabanako baten ekintzak ezin dira analizatu, gertatzen diren sistemaren barnean ez bada. Gertaera bat ulertezina gertatzen da, bere behaketa eremua ez bada testuingurua harrapatzeko bezain zabala. Komunikazio gertaeraren ingurune gutzia begi-

ratu behar da, inplikaturiko ekintza guztiak biltzeko. Gertakariak sistema oso baten zati bezala aztertu behar dira, eta ez gertakari independente bezala. Komunikazio orok aukeraketa suposatzen du; multzo batekiko erreferentzian hartu behar da mezua. Gerta daiteke mezu-igorleak erreferentzi multzo batean kokatzea bere mezua eta hartzaileak beste erreferentzi marko batean kokatzea. Zentzu honetan, mezu-igorleak pentsa dezake bere erreferentzi marko berbera duela mezu hartzaileak; eta nahastua egon liteke.

Garrantzitsua da, Watzlawickek agertzen duen bezala, gertakarien **erreferentzi markoa** kontuan hartzea, gertakaria ulertzeko. Erreferentzi markoaren garrantzi hau bi adibideren bidez argitzen digu: Kanada Iparraldeko azerien kopuruaren gehikuntzaren eta Konrad Lorenzi gertaturiko pasarte baten bidez.

- 1. adibidea: «*Kanada Iparraldeko eskualde batean, bertan bizi diren azerien kopuruaren gehikuntza eta gutxitze aldizkakoak gertatzen dira. Lau urteko zikloaren buruan kopuru maximora igotzen dira, ia iraungitzeraino heltzen dira gero, eta berriro ere ugaltzen hasten dira. Biologoak azeriak bakarrak aztertuko balitu, ziklo hauek ulertezinak izango liriateke... Baina, azerien janari-iturri nagusia untxi basatiek osatzen dutela ikusten denean, eta untziek beste etsai naturalik ez dutela jabetzean, bi espezie hauen arteko harremanak beharrezko azalpena ematen dio bestela ulertezina izango litzatekeen gertakari honi. Honela uler daiteke untziek ere antzeko ziklo bat izatea, ugaritze eta gutxitze aldien alderantzketarekin.*» (Watzlawick, 1967:21)
- 2. adibidea: «*Basetxe bateko parkean, bidetik doazen bidaiari batzuek ikusteko moduan, gizon bizartsu bat makurturik arrastaka doa, "zor-tzi" bat osatzen duen ibilbidea eginez, bere sorbaldaren gainetik etengabe behatuz eta karrankaz. Konrad Lorentzek honela deskribatzen du ahatetxoen inprinting esperimenduak egiterakoan eduki zuen jokaera, ahatetxoen ama ordezkatu zuenean*» (Watzlawick, 1963:22). Zoriontsu omen zebilen Lorentz, ahatetxoez nola jarraitzen zioten ikusiz, begirada altxatu eta parke inguruan aurpegi zurbileko jende ilara bat ikusi zuen arte. Turista multzo bat izaturik omen zegoen itxituraren kanpoaldetik berari begira, inguruko belar handiengatik ahatetxorik ez baitzuten ikusten; ikusten zuten jokaera guztiz ulertezin gertatzen zitzaien.

Bi gertakari hauen esanahia honetan legoke: gertakari bat ulertezina gertatzen da, inguratzen duen testuingurua biltzeko bezain zabala ez denean behaketa eremua. Gertakari baten eta bere testuinguruaren arteko harremanak ulertzen ez badira, funtsgabeko zerbaiten aurrean gertatzen da behatzailea. Absurdoa irudituko zaio bizi duen egoera eta modu desegokian interpretatuko du situazioa, edo ez dituen bereizgarri batzuk egotziko dizkio objektuari. Giza-zientziek ezin dezakete gizabanakoa eta bere jokaera entitate monadiko isolatu bat bezala aztertzen jarraitu. Kasu patologiko bat aztertzean ere, joka-

era nahastua agertzen duen pertsonaren izaeraz, inguruneaz eta bien arteko harremanez arduratu behar du psikologiak. «Ikerketaren mugak zabaldu eta pertsona baten jokaerak besteen gain dituen ondorenak, beste hauek dituzten erreakzioak eta guztia gertatzen den testuingurua biltzen baditu, orduan, artifizialki isolatu den monadatik sistema zabalago baten zatien arteko harremanak aztertzea igarotzen da fokoa. Giza jokaeraren behatzailea gogamenaren azterketa deduktibotik harremanaren agerpen behagarrien azterketara igarotzen da. Agerpen hauen adierazpidea komunikazioa da» (Watzlawick, 1963:23).

Kultura bateko kideek, gizarteratze prozesuari eta hezkuntzari esker, bade erreferentzi multzo bateratu bat, hizkuntzaren, ohituren edo azturen bidez jasotzen dutena. Hala ere, gizaki bakoitzak bere esperientzi berezia du, bere ingurugiro berezia bizi du, eta beraz, erreferentzi marko idiosinkrasikoa du. Nahiz eta testuinguruko osagai asko adostuak egon, beste hainbat osagai anbiguitatean eta definitu gabe gelditzen dira, eta metakomunikazio zuzen baten bidez bakarrik gaindi daiteke anbiguitate hori.

2. Gure ingurunean gertatzen diren diferentzia eta bereizkuntza potentzial guztietatik guregan eragina dutenak bakarrik bihurtzen dira guretzat informazio. Ingurune uniforme batean gure zentzuak ez dira estimulatzen. Osagai berri bat sartzen eta lekuz aldatzen bada, berehala hautematen da. Adibidez, Batesonek kleraz arbelean puntu bat egin ohi zuen eta gero gainean hatza jarrarazten zien ikasleei. Hatza gelditu edukiz gero ez da puntua ukimenez hautematen. Ibilian bai, hautematen da. Era berean, gelditu dauden gauzak hautemateko, mikronistagmo izeneko begien mugimendu txikiak beharrezkoak dira. Mugimendu horiei esker, irudia mugitu egiten da betsareko sentimen nerbioetan. Hori gabe ezingo genuke ikusi. Adibidez, zooan moztururik (kamufaturik) dagoen sugea ez dugu ikusten, gelditu dagoen artean; mugitzen hasi orduko, berehala ikusten dugu.

Pertsonok diferentziak ikusten ditugu. Baina, diferentzia ez da gauza objektibo bat; gauzen arteko harreman bat edo abstrakzio bat da. Giza pertzepzioarako harremanek eta diferentziek duten garrantzia argitu eta azpimarratzeko, funtzioaren kontzeptu matematikoaren eta harremanaren kontzeptua psikologian sartzearen artean dagoen paralelismoa aipatzen du Watzlawickek: «Greziko matematikarientzat zenbakiak magnitude konkretuak, errealak eta hautemangarriak ziren, errealak ziren objektuen propietate bezala ulertuak. Horrela, geometria neurtez arduratzen zen, eta aritmetika, kontatzen» (Watzlawick, 1963:25). Watzlawickek agertzen duen bezala, zeroaren nozioa zenbaki bezala pentsaezina zen eta magnitude negatiboek entitate propiorik ez zuten mundu klasikoaren errealtatean. Magnitude negatiboak ez ziren existitzen. Horrela, zenbakiak magnitudeen adierazpen diren ideiak irauten zuten, hari eta zenbakien ordean hizkiak erabiltzen hasi ziren arte. Modu honetara, zenbakiak magnitude bereziak (kopuru edo multzo ez-jarriak, elementu kontagarriez osatuak) ziren ideia bigarren mailan gelditu zen eta aldagaiaren ideia agertu zen: «eta aldagaiaren kontzeptu indartsua

sortu zen; kontzeptu hori haluzinazio bat bezain irreal kontsideratuko zuketenez Greziako matematikariek, izan ere, magnitude hautemangarri bat adierazten duen zenbaki batekin kontrastean aldagaiek ez baitute esanahi propiorik, eta beren arteko elkarrekiko harremanean bakarrik baitira esanguratsuak. Aldagaien nozioaren sarrerari esker, informazioaren dimentsio berria lortu zen eta matematika berria osatu zen. Aldagaien arteko harremanak (eskuarki berdintza moduan adieraziak) funtzioaren kontzeptua eratzen du» (Watzlawick, 1963:25-26).

Matematikaria ez da arduratzen gauzen izateaz, errealtateaz edo eragin-kortasunaz. Gauzak eta haien artean ezarri daitezkeen harremanak sinbolizatzeko ahalbidea bakarrik interesatzen zaio. Funtzioaren kontzeptuaren ideia aplikagarria da psikologiaren mundura, giza gogamenak harremanen abstrakzioz funtzionatzen baitu. Baina, psikologiaren azter-eremua pertsonarteo harremanetara hedatuta gero ere, psikologiako lexikoak eta hizkerak aldagaiak monadikoki isolatzen jarraitu zuten. Gizarteko elkareraginean saretik bereizita, sasientitate propio bat hartzen dute gizakiaren balizko ezaugarriek: «Hitz horiek guztiek sasierrealtate bat bereganatzera eraman zitzaizkeen ikuspegi honek, denbora luze samarrez pentsatu eta errepikatzen baziren behintzat» (Watzlawick, 1963:28). Horrela, «lidergoa», esate baterako, giza gogamenaren kantitate neurgarri bihurtu zitekeen, isolatutako fenomeno bat bezala hartzen baldin bazen.

Mugimendua erlaziozkoa da eta erreferentzi puntu batekin harremanean bakarrik hauteman daiteke. Ildo horretatik, zentzuei eta garunari buruz eginko ikerketen emaitzak aipatzen dira: harremanak eta harremanen pautak bakarrik hauteman daitezke eta haietan datza esperientziaren muina. Honela, adibidez; begiaren mugimendua gerarazten badugu, eta betsarearen eremu berberak irudi berbera hautematen badu, ikusmeneko pertzepzio garbia ez da posible izango. Soinu iraunkor eta aldagaizta hautematea zaila gertatzen da eta entzunezin bihurtu liteke. Gainazal baten egitura eta gogortasuna ikertu nahi dituzenean pertsona batek, hatz bat haren gainean jarri eta hatz hori alde batera eta bestera mugitzen du; izan ere, gelditu edukiz gero, informazio baliagari eta erabilgarriarik ezingo bailuke lortu (Watzlawick, 1963: 28-29).

Adibide hauetan guztietan eta beste batzuetan ikus daitezkeen, aldaketa, mugimendu eta miaketa prozesu bat dago pertzepzio guztietan. Harreman bat ezartzen da, zirkunstantzi desberdinetan frogatzen da eta funtzioaren kontzeptu matematikoaren antzeko abstrakzio batera heltzen gara. Gure hautemateen muina ez dago beraz gauzetan, funtzioetan baizik. Eta funtzioak ez dira magnitude isolatuak, lotura bat duten zeinuak baizik. Horrela, gizakiak bere buruaz duen pertzepzioa ere funtzioen pertzepzioa da, berak bizi dituen harremanen pertzepzioa.

3. Kanal baten gainzama ekiditeko modu bat, seinale guztiak bideratzea ziurtatuko duen kanal kopurua erabiltzea da. Alferrrikako kanal erredundanteak erabiltzen baditugu, bidalitako mezua jasotzeko probabilitatea gehituko dugu. Ez da gainzamarik gertatuko. Shannon eta Weaverrentzat, bidalitako seinalea

egoki jaso eta deskodetzeko probabilitatearen neurria ematen du erredundantzi mailak. Kanal ezberdinetatik zehar bidaltzen badugu informazio bera, kanal horietako batetik mezua iragateko probabilitatea gehitu egiten da.

Erredundantzia dagoenean, informazio auresankorra daukagu. Adibidez, erretrauetan gertatzen dena: «Zozoak beleari...», «Aukeran dabilenak...» bezalako atsotitzetan, hasiera ematea nahikoa da, amaiera asmatzeko. Atsotitz hauetan falta diren hitzak nahikoa auresankorrek dira. Komunikazioan erredundantzi maila bat beharrezkoa da. Baina, erredundantzia gehiegi edukiz gero, arreta galtzen da. Eguneroko errutinan erabiltzen dugun komunikazio fatikoa erredundantea izan ohi da, informazioerik ez duelako transmititzen. Komunikazio horrek komunikazio kanalak irekita mantentzearen funtzioa betetzen du.

Aldiz, testuinguru batean auresangarria ez den ustekabeko informazioa deskribatzeko, entropia hitza erabiltzen da. Adibidez: «Egunon!», «Egunon!», «Ederra giroa!», «Bai, lurpean sartzeko!». Azken amaiera hau auresangaitza da eta, beraz, entropikoa. Erredundantea ez den komunikazioak gure interesa piztu dezake; baina, entropia gehiegiak mezuaren deskodetzea zaildu ere egin dezake. Iragarrietan ere erabiltzen da entropia; erredundantzia handiko mezua bidali ordez, sarritan egiten den bezala, ustekabeko eta auresangaitza den zerbait bidaltzen da.

Watzlawickek deskribatzen duen Ashbyren homeostatoak lau azpisistema autoerregulatzaile identikoak ditu, elkarrekin erabat konektaturik; haietarik edozeinetan sorturiko nahasmendu batek besteak ukitzen ditu, eta, aldi berean, hauen erreakzioak hura ukitzen du. Azpisistema horietako edozeinek ezin lor dezake bere oreka besteetatik isolatuki. Parametro-balioen 390.625 konbinaketa eduki ditzake, hots, «barne edo kanpo inguruaren edozein aldatetari erantzuteko jarrera moldatzaile kopuru posible hori du. Bere konbinaketak zoriz bilatuz aurkitzen du homeostatoak bere egonkortasuna. Tentsiopean dauden organismoek duten entsegu eta hutsegite bidezko jokaeraren antzekoa da» (Watzlawick, 1963:34).

Baina, entsegu eta hutsegite bidezko bilaketa hau gehiegi luza daiteke, aurretik egin diren egokitzapen eta moldaerak gordetzen edo kontserbatzen ez badira. Horregatik, sistema naturaletan moldaeraren nolabaiteko kontserbazioa gertatzen da. Adibidez, haur batek ez du itxoingo egokitzapen heldu bat garatu bitartean: «Horrek esan nahi du, aurretiko moldaerak ez direla suntsitzen berriak aurkitzen direnean, eta bilaketa ez dela nahitaez hutsetik hasten, aurrez soluziorik inoiz lortu izan ez balitz bezala» (Watzlawick, 1963:34).

Guzti honek giza komunikazioaren pragmatikarekin duen harremana argitzen du jarraian Watzlawickek. Sistema bati bere aurretiko egokitzapen eta moldaerak pilatu eta etorkizunean erabiltzeko gaitasuna emango bagenio, barne-konfigurazioen segida errepikakorrak probableago bihurtuko lirateke; hau da, konfigurazio batzuk beste batzuk baino auresangarriago bihurtuko lirateke. Honela dio: «Homeostatoan, 390.625 barne-konfigurazioetako edo-

zeinek probokatua izateko probabilitate berdina du edozein momentutan, lau azpisistemen elkarreraginaz. Konfigurazio jakin baten sorrerak ez du inolako efekturik hurrengo konfigurazioan edo konfigurazio sailean. Honela, gertakariaren kate batek momentuoro gertatzeko probabilitate berdina baldin badu, zoriz jokatzeko duela esaten dugu. Ezin atera dezakegu ondorioerik, edo ezin auresan dezakegu ezer etorkizuneko segidari buruz.

Baina, homeostatoa bezalako sistema bati aurreko moldaerak pilatu eta etorkizunean erabiltzeko gaitasuna emango bagenio, barne-konfigurazioen segidarako probabilitate inherentek bat-bateko aldaketa bat jasango luke, konfigurazioen taldekatzeko batzuk errepikakor eta beste batzuk baino probableago bihurtuko bailirateke.» (Watzlawick, 1963:35)

Honelako kate bat informazioaren teoriaren kontzeptu oinarrikoen eta-koa izanen litzateke, eta prozesu estokastikoaren izena hartzen du. Prozesu estokastikoak sinbolo eta gertakariaren sarritasunaren barne legeak aztertzen ditu. Adibidez, kaxatik bola txuriak eta beltzak ateratzean gerta daitezken emaitzen probabilitatea, edo idazle baten estiloiari dagokionez, hizkuntz elementuen erabileraren probabilitate idiosinkrasikoa.

Informazioaren teoriaren arabera, prozesu estokastikoek erredundantzia edo hertsapena erakusten dute. Erredundantzia eta hertsapena konfigurazio kontzeptuaren balioak bezala erabiltzen dira. Entropiak mezuaren ziurtasun gabeziaren maila ematen digu. Wienerrentzat, informazioa entropiaren aitzikoa da. Sistema baten antolaketa mailaren neurria ematen du informazioak; entropiak, berriz, sistemaren desantolaketa mailaren neurria.

Erredundantzia oso aztertua izan da sintaktikan eta semantikan, hots, giza komunikazioaren hiru arloetako bietan. Giza komunikazioaren sintaktika eta semantikaren barneko probabilitate estatistikoaz asko dakigu gutako bakoitzak, baina ezer gutxi dakigu hizkuntza bateko hizki edo hitzen segida edo ordenu hierarkikoaren probabilitateaz. Izan ere, orainarte azterketa gutxi egin da giza komunikazioaren pragmatikako erredundantzia edo hertsaketei buruz. Hala ere, guztiok gara gai inprimategiko hutsegite bat zuzentzeko, falta den hitz bat jartzeko, hiztotele batek esan ezin dezakeen hitza asmatzeko edo beste batek bertsoa nola amaituko duen asmatzeko.

Giza komunikazioaren erredundantzia pragmatikoa erredundantzia sintaktiko eta semantikoaren antzekoa da. Arlo honetan ere ezagutza asko ditugu, jokaera ebaluatzen, aldatzen eta auresaten laguntzen digutenak. Eredu honetan, gainera, desadostasunekiko sentiberatasun handia dugu: testuingurutik at gelditzen den jokaera edo hertsapen gabezia batek gehiago inpresionatzen gaitu, hutsegite sintaktiko edo semantiko batek baino. Baina, pragmatikaren arlo honetan ditugu zailtasunik handienak komunikazio eraginkorren arauak hautemateko.

Pragmatikaren mundua ulergarri gerta dakigun, komunikazio harremanen konfigurazio errepikakorrak bilatu behar ditugu. Baina, ze konfigurazio ematen dira elkarreraginetan? Batesonen arabera, ikaskuntza ordenuen eskalan igotzen goazen neurrian, gero eta abstraktuago diren konfigurazio eskual-

deetara heltzen gara, azterketa kontzientetik gero eta urrunago daudenetara. Gure konfigurazioak antolatzeko darabiltzagun premisak zenbat eta abstraktuagoak, orokorragoak eta formalagoak izan, are eta sakonago hondoratzen dira maila neurologiko edo psikologikoetan eta are eta urrunago gelditzen dira kontrol kontzientetik. Adibidez, dependentziarako aztura hautematea zailago da, okasio batean laguntza jaso izana hautematea baino.

Komunikazio prozesuko ez-arbitrarietateak hertsapen kontzeptura garamatza. Aldagaiak modu ezarbitrarioan jokatzen duten guztietan dago hertsapena. Mezuak auresangarriak badira, hertsapenei esker da neurri handi batean. Bate-sonek dioen bezala, modelaketa edo auresangarritasuna komunikazioaren bihotzean aurkitzen dugu. Mezuen elkartruke guztiek, zoriz gertatzen ez badira, mugak jartzen dituzte eta geroko elkarreteragina hertsatzen dute. Hertsapenaren kontzeptuari esker komunikaziozko elkarreteragina beste giza jokaeretatik bereiz dezakegu.

Behatzaile bat egon daiteke xake partida bat ikusten, xakean jokatzeke arauak ezagutu gabe. Jokalarien jokaera ikusita, zeraz jabetzen da: errepikapen eta erredundantzia maila batzuk badaudela eta ondorio batzuk atera ditzakeela haietatik. Behatzaileak, dezente denbora behatzen egonez gero, erredundantzien konfigurazio konplexu bat identifika lezake. Xakeak baditu bere arau sintaktiko, semantiko eta pragmatikoak. 64 lauki ditu; alde bakoitzean 8. Zutabeak a, b, c, d, e, f, g eta h deitzen baditugu, eta lerroak, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 deitzen baditugu, arau sintaktiko bat ezar dezakegu, lauki bat izendatzerakoan: lehenengo zutabea jarri eta gero lerroa; adibidez, e3 laukia. Orduan, ezingo genuke 3e laukia idatzi. Xakearen 16 piezak izendatzeko, arau semantikoak erabiliko genituzke: E = erregea; Ea = erregina; A = alfilak; Z = zaldia; D = dorreak; P = peoiak. Zein piezaz ari garen jakiteko, arau sintaktiko berriak beharko genituzke:  $Pf_2 = f_2$  laukiko peoia (lehenik piezaren sinboloa eta gero laukiarena). Azkenik, mugimenduentzako ere arau sintaktikoak jarri beharko genituzke; lauki hutsera egiten bada mugimendua: adibidez, Pd2-d4; pieza janez egiten bada mugimendua: adibidez, Pd4 × Ac5. Arau sintaktiko eta semantiko hauez gain, badira joko arauak eta erredundantzia gehiago eransten duten arau pragmatikoak ere. Xakean jokatzen ari direnei begira dagoena berehala konturatzen da jokalariek piezen bidez egiten dituzten mugimenduak ez direla arbitrarioak; erredundantzia eta hertsapen batzuk badituztela.

Bi pertsonen arteko harremana behatzen dugunean ere, hasieran oso zabal da jokaera posibleen errepertorioa. Baina, besterik da praktikan gertatzen dena. Pertsona baten jokaera jakin bati bestearen jokaera jakin batek erantzuten dio, ohituragatik, ikaskuntzagatik edo beste arrazoiren batengatik; hertsapenak edo erredundantziak badaude. Lehen multzoko elementu baten agerpenak bigarren multzoko edozein elementuren agerpen-askatasuna hertsatzen duenean, erredundantziak hitz egiten da. Adibidez, bi pertsonen arteko harremanetan bietako batek bestearen arreta bereganatu nahi duenean, sekuzio jokaerak hasten ditu, bestearen harreman errepertorioaren ugartasuna

mugatzearen. Bikoteko kide bakoitzak arrisku batzuk hartuko ditu; jokaera batzuetara ausartuko da eta jokaera horien ondotik bestearen erreakzio batzuk etorriko dira. Horrela jakingo dute batak eta besteak zer baloratzen edo preziatzen duten. Bataren jokaera auresankorra gertatuko da bestearentzat.

Erredundantzia ikaskuntzarekin loturik doa eta hura gabe ezingo genuke bestearen jokaerarik auresan. Hertsapen gabeko harreman askeen irudi erromantikoarekin amets egiten badu ere jendeak, oso neketsua gertatuko litzateke inolako erredundantziarik gabeko harremanak ukaitea. Erredundantziari esker egokitzen baikara ingurunera. Bikoteko edo gizarteko kideen harreman arauak zedarrizten ditu erredundantziak: arau horiei esker jakin dezakegu inguru bakoitzean zer egin dezakegun eta zer ez. Komunikazioaren eginkizuna erredundantzia, hertsapena, informazioa eta esanahia sortzea da. Ikaslearen eta ingurunearen arteko erredundantzia gehitzea da ikaskuntzaren egitekoa.

Sluzkiren arabera, zibernetikaren bilakaeran bi etapa handi bereizten dira. Lehen uhina sistemen homeostasia aztertzen duena da: morfostasia; eta bigarren uhina, sistemen garapena eta egitura berrien sorrera aztertzen duena: morfogenesisia. Bigarren mailako zibernetika honetan behatzailea ere sistema behatuan sartzen da. Orain arte, sistemen oreka gordetzea ahalidetzen duten prozesu arautzaileei buruz hitz egin da. Baina, garapenean zehar, sistema biologiko eta sozialetako osagaiak atalase kritiko batzuetatik iragaten dira. Morfostasiak arauetatik desbideratzea ekiditen bazuen, morfogenesisiak desbideratzeak sustatu egiten ditu eta forma berrien sorrera ekartzen du. Atzeraelikadura positiboek egonkortasun posiziotik urrun eramanez dezake sistema; sistemak eztanda egin dezake, edo forma berrien inguruan kalibraketa berriak egin ditzake.

Ilya Prigoginek orekatik urrun dauden sistema fisiko-kimikoen hitz egiten du; «egitura barreiatzaile edo disipatibo» deituriko eredu ebolutiboak agertzen ditu. Termodinamikaren 2. legearen arabera entropikoak izan beharko luketen sistema ezegonkor batzuk dira egitura barreiatzaileak; ezegonkorrak izaki, beren egiturak barreiatzen joan beharko lukete; baina, paradoxikoki, inguruko elementu berriak erabiliz, egitura berri egonkor eta autonomoak sortzen dituzte.

#### 4.1. Pertsonarteko komunikazioaren axiomak, Watzlawick-en arabera

##### *Ez komunikatzearen ezintasuna*

Watzlawick-en eta, oro har, Palo Altoko eskolaren arabera, pertsona ezin daiteke komunikatu gabe egon. Pertsona baten hautemate eremuaren barnean beste pertsona bat dagoen guztietan, edozein jarduerak edo jarduerarik ezak mezu baten balioa hartzen du. Giza jokaeren gehiago handi bat komunikazio litzateke, beraz.

Jokaera guztia komunikaziotzat har liteke. Berbazkoa bakarrik den mezu-unitaterik ez dugu erabiltzen. Jokaera mota guztien (hitzezkoa, tonuarena, ja-

mugatzearren. Bikoteko kide bakoitzak arrisku batzuk hartuko ditu: jokaera batzuetara ausartuko da eta jokaera horien ondotik bestearen erreakzio batzuk etorriko dira. Horrela jakingo dute batak eta besteak zer baloratzen edo preziatzen duten. Bataren jokaera auresankorra gertatuko da bestearentzat.

Erreduantzia ikaskuntzarekin loturik doa eta hura gabe ezingo genuke bestearen jokaerarik auresan. Hertsapen gabeko harreman askeen irudi erromantikoarekin amets egiten badu ere jendeak, oso neketsua gertatuko litzateke inolako erreduantziarik gabeko harremanak ukaitea. Erreduantziari esker egokitzen baikara ingurunera. Bikoteko edo gizarteko kideen harreman arauak zedarrizten ditu erreduantziak: arau horiei esker jakin dezakegu inguru bakoitzean zer egin dezakegun eta zer ez. Komunikazioaren eginkizuna erreduantzia, hertsapena, informazioa eta esanahia sortzea da. Ikaslearen eta ingurunearen arteko erreduantzia gehitzea da ikaskuntzaren egitekoa.

Sluzkiren arabera, zibernetikaren bilakaeran bi etapa handi bereizten dira. Lehen uhina sistemen homeostasia aztertzen duena da: morfostasia; eta bigarren uhina, sistemen garapena eta egitura berrien sorrera aztertzen duena: morfogenesia. Bigarren mailako zibernetika honetan behatzailea ere sistema behatuan sartzen da. Orain arte, sistemen oreka gordetzea ahalidetzen duten prozesu arautzaileei buruz hitz egin da. Baina, garapenean zehar, sistema biologiko eta sozialetako osagaiak atalase kritiko batzuetatik iragaten dira. Morfostasiak arauetatik desbideratzea ekiditen bazuen, morfogenesiak desbideratzeak sustatu egiten ditu eta forma berrien sorrera ekartzen du. Atzeraelikadura positiboek egonkortasun posiziotik urrun eramane dezake sistema; sistemak eztanda egin dezake, edo forma berrien inguruan kalibraketa berriak egin ditzake.

Ilya Prigoginek orekatik urrun dauden sistema fisiko-kimikoez hitz egin du; «egitura barreiatzaile edo disipatibo» deituriko eredu ebolutiboak agertzen ditu. Termodinamikaren 2. legearen arabera entropikoak izan behar ko luketen sistema ezegonkor batzuk dira egitura barreiatzaileak; ezegonkorak izaki, beren egiturak barreiatzen joan behar ko lukete; baina, paradoxiko ki, inguruko elementu berriak erabiliz, egitura berri egonkor eta autonomoak sortzen dituzte.

#### 4.1. Pertsonarteko komunikazioaren axiomak, Watzlawick-en arabera

*Ez komunikatzearen ezintasuna*

Watzlawick-en eta, oro har, Palo Altoko eskolaren arabera, pertsona ezin daiteke komunikatu gabe egon. Pertsona baten hautemate eremuaren barnean beste pertsona bat dagoen guztietan, edozein jarduerak edo jarduerarik ezak mezu baten balioa hartzen du. Giza jokaeren gehiengo handi bat komunikazio litzateke, beraz.

Jokaera guztia komunikatuz har liteke. Berbazkoa bakarrik den mezu-unitaterik ez dugu erabiltzen. Jokaera mota guztien (hitzezkoa, tonuarena, ja-

Heranburu, H. eta Parraola, M., 2002 : 53-71

rrerarena, testuinguruarena...) aurpegi anitzeko adierazpide jariakor eta multifazetikoa erabiltzen dugu komunikazioan. Komunikazioaren osagai desberdinok modu desberdin konplexuetan konbinatzen dira elkarrekin; batzuetan adostasunean, besteetan desadostasunean, eta modu paradoxikoan ere bai. Gure lana, konbinaketa hauek pertsonarteko situazioetan duten efektu pragmatikoa aztertzea izanen da.

Jokaeraren ezaugarri oinarrizkoena jokaeraren aitzikorik ez egotearena da Watzlawickentzat; ezina da jokaerarik eza. «*Elkarreragin situazio batean gertatzen diren jokaera guztiek mezu balio bat dutela, komunikazio direla, onartzen bada, orduan zera eratorri behar da: ahaleginak egin arren, ezina dela ez komunikatzea. Jarduerak edo jarduerarik ezak, hitzak edo isiltasunak mezu balioa dute: besteen gain eragina dute, eta hauek ezin dira komunikazio horiei erantzun gabe gelditu, eta beraz, komunikatu egiten dira*» (Watzlawick, 1963:50).

Ez komunikatzearen ezintasunaren adibide gisa jartzen du Watzlawickek behaketa hau: gela batean bi ezezagun jarri zituzten elkarren aurrean eserita. Eman zitzairen agindua, elkarrekin ez hitz egitea eta inolaz ere ez komunikatzea izan zen. Gero, situazio horretan sentiturikoaz hitz egin zuten eta agerian geratu zen bizi izandako tentsio handia. Eztabaida sutsu batean bizi izaten denaren antzeko komunikazio elkartruke bat gertatu zen situazio horretan ere.

Wienerren arabera, benetako komunikazioa egon dadin, alde batetik, mezu bidaltzen duenak, komunikazio prozesua sortzeko asmoa eduki behar du, eta bestetik, asebetetzailerak eta kontzientea izan behar du mezuak. Watzlawickentzat, ezin esan dezakegu, horretarako asmoa dagoenean, nahita egiten denean edo eraginkorra denean bakarrik gertatzen denik komunikazioa. Gainera, ezin da jakin mezu bat noiz den intenzionatua, kontzientea eta eraginkorra. Horregatik, bi edo pertsona gehiagoren presentzia nahiko baldintza bezala jartzen da, komunikazioa egon dadin. Watzlawick eta Beavinen arabera, partaideek sistema bezala eta modu ezarbitrarioan jokatzeko duten neurrian egongo da komunikazioa.

Komunikatu gabe egoteko ezintasuna eskizofrenikoak bizi duen kinkarekin parekatzen du Watzlawickek. Eskizofrenikoa ez komunikatzen ahalegintzen dela dirudi: «*Komunikazio guztiek konpromiso bat inplikatzeko dutenez, bidaltzaileak hartzailearekin duen harreman mota definitzen duenez, zera iradoki daiteke: eskizofrenikoaren jokaera ez-komunikatzailea, konpromiso guztiak ekiditeko entsegu bezala ulertu behar da*» (Watzlawick, 1963:51). Baina, anbiguitatea, ekibokotasuna, isiltasuna, atzerakuntza edo higigaitzatsuna ere komunikazio moduak direnez, eskizofrenikoak ez komunikatzeko egiten dituen ahaleginak alferrikakoak gertatzen dira. Modu honetara uler daitezke komunikazio eskizofrenikoaren alderdi asko. «*Eskizofrenikoen dilema hau da: komunikatzen direla ukatuko balute bezala jarduten dira eta gero ukazio hori bera ere komunikazio dela ukatu beharrean aurkitzen dira. Baina, gerta daiteke pazienteak komunikatu nahiaren inpresioa eman nahi iza-*

*tea, komunikazio ororen baitako konpromisoa onartu gabe. Adibidez, neska eskizofrenikoa gazte bat psikiatraren kontsultategian sartzen da lehenengo entrebistan, eta honela dio alai: "Nire amak ezkondu beharra izan zuen eta orain hemen nago" Asteak behar izan ziren baieztapen honetan kondentsaturiko esanahi anitzetako batzuk argitzeko... ». (Watzlawick, 1963:73-74). Eskizofrenikoaren baieztapenean bildutako esanahi ezberdinak modu ekibokoa eta kriptikoa emanak daude. Esandakoa zentzu jakin batean hartzen baduzu, ukatu egingo dizu; beste zentzuan hartzen baduzu ere berdin gertatuko da. Interpretazio konkretu guztiak ekiditeko moduan komunikatzen da. «*Eskizofrenikoaren hizkerak elkarren artean desberdin ezezik ezkontezinak ere gerta daitezkeen hainbat esanahi posibleen artean aukeratzera behartzen du solaskidea. Mezu baten edozein alderdi edo alderdi guztiak ukatzea posible gertatzen da horrela. Bere iruzkinak zer esan nahi zuen esateko presionatuz gero, pazienteak hau esan dezake: "Ah, ez dakit; zorabuta egon behar dudala suposatzen dut!". Esandakoaren alderdiren bat argitzeko eskatuz gero, honela erantzun dezake: "Ah, ez, hori ez da inolaz ere nik esan nahi izan dudana...". Bere baieztapena kondentsatua dago eta zail egiten du berehalako (bat-bateko) ezagurza; aurkitzen den situazio paradoxikoaren deskribapen koherentea da*» (Watzlawick, 1963: 74).*

Fenomeno hau literaturan eta eskizofrenian gertatzen da, baina komunikazio ororen baitako konpromisoa ekidin edo saihestu nahi den edozein testuingurutan ere gerta daiteke. Adibidez, bi ezezagunek topo egiten dutenean, bietako batek solasaldiari ekin nahi liokeenean, baina besteak solasaldia ekidin nahi lukeenean. Egin dezagun kontu trenean elkarren ondoan joan behar dutela bi bidaiariak. A bidaiariak ez du solasik nahi, eta B bidaiaria solaserako irrikitzen dago. A bidaiariak ezin dezake ihes egin, eta ezin daiteke komunikatu gabe egon.

Komunikazio testuinguru honen pragmatikan gerta daitezkeen irtenbideak hauek dira, Watzlawickek agertzen duen bezala: 1. Komunikazioa baztertu: A pasaiariak B pasaiariari, solasaldia ez zaiola interesatzen sentiarazten dio, gizabide handiago edo txikiagoz. 2. Komunikazioa onartu: A pasaiariak amore emango du eta hitz egiten hasiko da, nahiz eta bere buruarekin deskontent agertu, bere ahultasuna dela eta. 3. Komunikazioaren deskalifikapena: bere komunikazioa edo besteen komunikazioa baliogabeturik uzteko moduan komunika daiteke. Horretarako, autokontraesanak, gai aldatetak, ekiditeak, amaitu gabeko esaldiak, metaforen hitzez-hitzezko interpretazioak eta beste hainbat adierazpide idiosinkrasiko erabiliko ditu. Honelako situazio batean harrapatuturik, derrigorrean komunikatu beharrean aurkitzen denak, baina aldi berean komunikazio ororen konpromisoari ihes egin nahi liokeenak, komunikamodu berezia darabil. Ez legoke alde handirik kinka honetan aurkitzen den pertsona normal baten jokaeraren eta eskizofrenikoaren jokaera arruntaren artean: biak daude komunikazioaren sarean harrapatuak, biak daude komunikatzera behartuak, eta biek dute komunikatzeko erreparoa. 4. Sintoma komunikazio bezala: «*A pasaiariak laugarren eran-*

tzun bat erabil dezake, B-ren berbararioaren kontra defendatzeko: logura, gorriera, mozkorraldia, hizkuntzaren ezezagutza, edo komunikatu ezina zurutuko duen beste edozein gabezia. Kasu guztietan, hau da mezua: "Nik ez daukat ezer hitz egitearen kontra, ez ninduke molestaturiko hitz egiteak, baina ni baino zerbait indartsuagoa da hitz egitea eragozten didana, eta horren errurik ezin dakidake bota niri"» (Watzlawick, 1963:78). Honelako komunikazio situazio batean aurkitzen den kide batek badaki bestea iruzurtzen ari dela. Baina, darabilen trikimailua ezin hobea da, bere kontroletik haratago dauden indarren esanetara dagoela, eta inguruko zentsuratik horrela askatzen dela sinestarazten baitio bere buruari. Edonola ere, sintoma bat dauka, eta sintoma hori besteekin komunikatzeko trikimailu eragingarri bezala aztertu behar da.

#### Gertaeren segiden puntuaketa


Musituk dioen bezala (1993:54), benetako espazio eta denbora batean gertatzen da komunikazio prozesua: zirkuitu espazio-temporalean etengabeko gertaera-segidetan kateatzen dira komunikazio ekintzak. Etenik gabeko segida hori kontuan hartzen badugu, ez dago komunikazio prozesua ordenatu eta deskribatzeko erabil daitezkeen unitate bereizi naturalik. Beharrezkoa da elkartrukeen segida antolatuko duen puntuaketa sistemaren bat finkatzea. Puntuazio sistema horrek komunikazioaren prozesuaren ideia eten eta bortxatu egiten du, prozesu jarraitu eta natural bat unitate bereizi eta arbitrarioetan zatitzen baitu; baina, beharrezkoa da prozesuaren ulerkuntzarako. Komunikazio prozesua jarraikorra izan ohi da, eta edozein puntuaketa sistema onartzen dugula ere, arbitrario eta subjektibo bezala kontsidera liteke. Horregatik, ikerlariak kontuan hartu beharko du bere erabakien arbitrariedadea eta subjektibitatea.

Harreman baten izaera, komunikazioaren segidaz partaide bakoitzak dabilen puntuaketaren menpe dago. Puntuazio moduak oso desberdinak izan litezkeenez, modu konkretu bat aukeratzea, subjektiboa eta arbitrarioa izango da beti. Kultura ezberdinek ere modu arbitrarioan aukeratzen dituzte beren puntuaketa ohiturak. Edonola ere, kultura bereko kideek hainbat puntuazio ohitura konpartitzen dituzte. Komunikazioko partaideek errealitatea ikuspegi ezberdinetatik ikusten dute, eta modu desberdinean puntuatzen dituzte harremanak. A eta B elkarerraginean ari direnean, bakoitzak bere ikuspegitik pentsa dezake bere jokaera bestearen jokaerari ematen zaion erantzuna dela. Komunikazio prozesua puntuatzeko moduak pertsonen jokaerari zer-nolako esanahia ematen zaion eta nola ebaluatzen den adierazten du. Bestalde, komunikazio prozesua kontzeptualizatzean, partaideen ikuspegiak gain, sistemaren behatzailearen ikuspegiak ere kontuan har liteke. Partaideen ikuspegitik begiratzean, barnetik puntuatzen da prozesua. Behatzailearen ikuspegiak, berriaz, elkarerraginean osotasun bezala ikusteko aukera ematen digu.

Behatzaile batentzat komunikazio segida bat elkartrukeen segida etengabe bezala uler daiteke; baina, elkarerraginean eskuhartzen dutenak etengabe ari dira gertaeren segidak puntuatzen. Elkartrukeen segida hauek luzeak izaten dira, eta segidako item bakoitza, aldi berean, kinada, erantzuna eta errefortzua izan ohi da. A-ren jokaera konkretu bat kinada bat da, B-ren jokaera konkretu batek jarraitzen baitio, eta B-ren jokaera konkretu bat kinada da, A-ren jokaera konkretu batek jarraitzen diolako. Baina, A-ren jokaera B-ren bi jokaeren artean lekutua dagoenez, erantzun bat da. Era berean, A-ren jokaera errefortzu bat da, B-ren jokaera bati jarraitzen diolako. Honela, hemen aztertzen ditugun elkartrukeak lotura hirukoitz gainjarriak dira, eta horietako bakoitza kinada-erantzun-errefortzu segidarekin aldera daiteke. Elkartrukeen segida luze batean, bietako bati ekimena, nagusitasuna edo menpekotasuna aitortzeko moduan puntuatzen dute segida komunikazioaren partaideek. Elkartrukeak errefortzatzeko jarraibide eta arau konkretuak ezartzen dituzte. «Arazoa ez da komunikazio segida baten puntuazioa ona ala txarra den zehaztea, garbi baitago, puntuazioak jokaeraren gertakariak antolatzen dituela, eta, beraz, elkartrukeetarako oinarritzak dela. Kultura bateko kide garenaz, puntuazio konbentzio asko ditugu elkarbanaturik: konbentzioa hauek, nahiz eta gertaera beraien beste ikuspen batzuk baino zehatzagoak ez izan, elkarerraginean segida bateratuak eta garrantzitsuak ezagutzeko baliozkoak dira. Adibidez, talde baten barnean modu jakin batez jotzen duen pertsona bat "lider" deitzen dugu eta bestea "jarraitzaile", nahiz eta zaila izan lehenik zein sortzen den, eta ondoren zein, erabakitzea» (Watzlawick, 1963:57).

Edonola ere, gertaeren segida puntuatzeko moduari buruzko adostasunik ezak gatazka asko eragiten ditu harremanetan. Adibidez, suposa dezagun Watzlawickek batera, bere harremanetan etengabeko arazoak dituen bikote batean senarrak etengabe bere baitan bilduz aurre egiten diola gatazkari eta emazteak etengabeko errietak egiten dizkiola. Terapeutaren aurrean bakoitzak bere azalpenak emateari ekiten dionean, emaztearen etengabeko errietei emandako erantzuna bezala interpretatzen du senarrak bere itxitasuna. Emazteak, bere aldetik, benetan gertatzen denaren hautemate oker bat besterik ez dela interpretazio hori esango du; bere jokaeraren zergatia senarraren geldotasunean aurkitu behar dela. Elkarren arteko eztabaidetan mezu berbera elkartrukatzen dute etengabeki: «Errieta egiten didazulako atzeratzen eta ixten naiz» eta «Atzeratzen eta ixten zarelako egiten dizut errieta».

Watzlawickek modu honetara agertzen du senarraren eta emaztearen puntuaketa ezberdinen situazio hau:





Grafiko honetan ikus daitekeenez, senarrak 2-3-4, 4-5-6, 6-7-8... hirukoiteak hautematen ditu eta horien arabera puntuatzen du. Horrela, bere jokaera bere emaztearen jokaeraren erantzun bezala interpretatzen du; emaztearen jokaera da bere jokaeraren zergati. Emaztearen ikuspegitik, gauzak beste modu batera ikusten dira: 1-2-3, 3-4-5, 5-6-7... hirukoteen arabera puntuatzen du gertaeren segida, eta bere jokaera, senarraren jokaerari emandako erantzuna bezala interpretatzen du; senarraren jokaera da bere jokaeraren zergati. Bakoitzak bere ikuspegi berezitik ikusten eta interpretatzen du errealitatea, eta ez dira gai harremani buruz metakomunikatuz elkarreagina arautzeko.

Komunikazio segidaren puntuazioan erabaki gabeko desadostasunak badaude, horrek irteera gabeko kaletarera eramán gaitzake harremanetan. Hori gertatzen da, adibidez, komunikatzaileetako batek besteak adina informazio ez duenean, baina ez dakienean. Watzlawickek dakarren adibidea argitzailea da: «*P-k eskutitz bat idatzi dio O-ri, eta negozio bat proposatu dio eskutitz horretan. O-k proposamena onartu du, baina bere eskutitza ez da helmugara heldu. Denbora bat pasata gero, P ondorio honetara heldu da: O-k ez du kontuan hartu bere proposamena eta hartaz gehiago ez interesatzea erabaki du. Bestalde, O ere haserre dago, bere eskutitzaren erantzunik jaso ez duelako, eta P-rekin harremanetan ez jartzea erabaki du. Momentu honetatik aurrera, tirabira isilak betirako iraun dezake, beren komunikazioekin zer gertatu zen ikertzea edo metakomunikatzen hastea erabakitzen ez badute behintzat. Orduan bakarrik jakingo dute P-k ez zekiela O-k erantzun zuela, eta O-k ez zekiela bere erantzuna inoiz ez zela P-ren eskuetara heldu. Ikus daitekeen bezala, adibide honetan ustekabeko gertakari bat da puntuaketaren kongruentziarekin interferitzen duena» (Watzlawick, 1963:93).*

Adibide honek garbi uzten duena honako hau da: besteek guk dugun informazio bera dutela edo informazio horretatik ondorio berberetara heldu behar dutela pentsatzeak funtsik ez du. Uneoro jasotzen ari den milaka inpresioen aurrean selekzio prozesu gogor bat egin beharrean gertatzen da pertsona; horrela bakarrik ekidin dezake, garuneko goi zentruak garrantzi gabeko informazioz gainezkatuak aurkitzea. Baina, dirudienez, garrantzizkoa zer den eta zer ez den erabakitzerakoan, aldeak daude batzuetatik besteetara; hori dela eta, errealitate beraren aurrean hautemate ezberdinetara heltzen gara gizakiok.

Komunikazio patologikoaren kasuan, irteerarik gabeko gurpil zoroaren zurrunbiloan sartzen dira komunikatzaileak, eta irteera aurkitzekotan, komunikazioak berak komunikazio gai bihurtu behar du. Baina, horretarako, gurpil horretatik kanpora kokatu behar da. Puntuaketa adostasunik ez dagoenean, zergatia zein den eta efektua zein den eztabaidatzen hasten gara, logika lerrokatuaren ikuspegitik; elkarreaginaren zirkularitatea kontuan hartzen badugu, ordea, gurpil zoro horren baretik irteteko metakomunikatzea beharrezkoa da.

Autobetetzen den auresatearen kontzeptua komunikazioaren gurpil zoro honetan sartzearen adibide litzateke. Pertsona bat inork maite ez duen ustetik

abiatzen bada, mesfidantzaz, agresibitatez eta modu defentsiboan agertuko da besteen aurrean; aurkezpen babeskor-erasokor horren aurrean negatiboki erantzungo dute besteek eta pertsonaren hasierako ustea egiaztatu egingo dute. Watzlawick iritziz, giza komunikazioaren pragmatikarako, pertsona bat uste horretatik zergatik abiatzen den jakiteak baino garrantzi gehiago du pertsonarteko elkarreaginean gertatzen diren hertsapen eta errepikapenak aztertzeak. Pragmatikaren ikuspegitik, honako hau ikusten da: «*gizabanako horren pertsonarteko jokaeran hertsapen edo erredundantzia mota hori agertzen dela, eta efektu osagarri bat eragiten duela besteengan, jarrera berezi batzuk hartuaraziz. Segidaren puntuazio problema sortzen duena hau da: gizabanakoak pentsatzen duela, berak jarrera horiei erantzun bakarrik egiten diela, eta berak ez dituela jarrera horiek eragiten» (Watzlawick, 1963:96).*

Auresate autobetetzaileen adibide bezala, familia juduetako tradizioan, ezkontzagile profesionalekin gertatzen zena aipatzen du Watzlawickek: gurasoek eskatzen zuten ezkontzagile profesionalaren adibidea. Ezkontzagile honek ezkontide bakoitzarekin hitz egiten zuen lehenik; ondoren, beste ezkontideak berarekiko agertu zuen interes biziaren berri ematen zion ezkontide bakoitzari. Eta hau esaten zien bikoteko bi kideei: besteak interes hori zuzenki ez agertzearen arrazoia haren herabetasunean aurkitu behar zela eta ez haren interes gabeian. Modu honetara sortarazitako igurikapenak luzera gabe betetzen ziren.

#### *Eduki maila eta harreman maila*

Komunikazio guztiek, informazio edo eduki bat transmititzeaz gain, agindu, konpromiso edo harreman mota bat daramate beren baitan. Komunikazio batek, informazioa transmititzeaz gain, aldi berean jokaera batzuk eragiten ditu. Batesonen arabera, komunikazioaren alderdi bi hauek «erreferentzi» edo «txosten» («report») alderdia eta alderdi «konatiboa» edo «agindu» alderdia («command») bezala ezagutzen dira: «*En 1951, Bateson signalait les deux aspects ou fonctions, distincts de la communication, le compte rendu (report) eta l'ordre (command). De toute évidence, toute communication transmet une information positive qu'on peut supposer évaluable en termes de vérité et de fausseté et qu'on peut traiter logiquement comme l'“objet” de la communication...*

*Cependant, outre cet indice, le même segment de communication comporte un autre aspect, d'un intérêt incommensurablement supérieur pour notre théorie des relations interpersonnelles: il transmet un ordre indiquant la manière dont on doit prendre cette information» (Paul Watzlawick, John H. Eakland: 1977, 29-30).*

Komunikazioko mezu baten erreferentzi alderdiak mezuaren informazio edo eduki alderdia adierazten du. Alderdi konatiboa, berriz, komunikatzaile-

en arteko harremanaz ari da. Mezuaren eduki alderdia eta eraginezko alderdia agertzeko, Batesonengana jotzen du Watzlawickek: «*Batesonek analogia fisiologiko bat jartzen du: A, B eta C-k neuronon kate lerrokatu bat eratzten badute, B neuronaren disparoa A neuronak disparatu duenaren "informazioa" eta C neuronak dispara dezan "agindua" da*» (Watzlawick, 1963: 52).

Komunikazioaren alderdi bi hauen deskribapena hainbat adibideren bidez ager liteke.

1. Komunikazioaren bi maila horien ilustrazio bezala Watzlawickek dakarren asmakizun batekin emango diogu hasiera adibideen zerrendari:

*Bi zaindarik atxilotu bat zaintzen dute bi ate dituen gela batean. Atxilotuak badaki zaindariatako batek beti egia esaten duela eta besteak beti gezurra esaten duela, baina ez daki zein den egia eta zein gezurria. Azkenik, zera esan zaio: bere askatasuna lortzeko bide bakarra, giltzaz itxi gabe dagoen atea identifikatzea dela, zaindariatako bati galdera bat eginez.*

*(Atxilotuak luzaz hausnartzen du itxuraz ebazteazina den arazo horretaz, baina, azkenik, galdera zuzena egiten du: atetako bat seinalatuz, zaindariatako bati galdetzen dio (ez dio axolarik zein ate edo zein zaindari): «Nik zure lagunari galdetuko banio ate hori irekita dagoen, zer erantzungo lidake? Erantzuna baiezkoa bada, orduan atea itxita dago, eta ezezkoa bada, atea irekita dago» (Watzlawick, 1963:52-53).*

Horrelako problema baten ebazpenak komunikazioaren eduki alderdia eta harreman alderdia kontuan hartzea eskatzen du. Atxilotuak maila bietako informazioaren beharra du problema ebazteko: ateei buruzko informazioa eta metainformazioa edo informazioaren erabilpenari buruzko informazioa (zaindariei buruzko informazioa). Situazioa ulertzeko objektuei buruzko informazioa (ateak giltzatuak dauden ala ez) eta informazio horri buruzko informazioa (zaindaria eta beren harreman motak) erabili behar ditu.

2. Hona hemen Watzlawickek dakarren beste adibide bat: A emakumeak B emakumeak daraman idunekoa seinalatuz, galdera hau egiten dio: «Bentakoak al dira perla horiek?». Galderaren edukiak objektuari buruzko informazioa eskatzen du, baina bien arteko harreman mota zermolakoa (maitekorra, lehiakorra edo bestelakoa) den ere ager diezaguke. B subjektuak eman edo bazter dezake erantzuna, baina inolaz ere ezingo du mezuari erantzun gabe gelditu.

Komunikazio elkarreraginari begira jarrita, adibideetan ikusi dugun harreman berori dakusagu erreferentzi alderdiaren eta alderdi konatiboaren artean: lehenak komunikazioko datuak transmititzen ditu, eta bigarrenak komunikazio hori nola ulertu behar den, hau da, kideen arteko harremana agertzen du.

3. Giza komunikazioan abstrakzio maila ezberdinak daude. Lehen maila maila denotatiboa da. Adibidez: «Txakurra txokoa dago». Bigarren maila me-

tahizkuntzarena da. Adibidez: «Txakur hitzak zaunka egiten duten ugaztunak izendatzen ditu». Metakomunikazioaren maila, berriz, solaskideen arteko harremanaz ari da. Adibidez: «Txakurrari buruzko esaldia esan dizudanean, broman ari nintzen edo zuri lagundu nahian ari nintzen». Abstrakzio maila hauek nahasten badira, Russellen erako paradoxekin egin dezakegu topo.

Komunikazioaren harreman alderdia «metakomunikazio» kontzeptuaren kide bezala har daiteke: komunikazioari buruzko komunikazioa da. Giza hizkuntzak egitura hierarkikoa du. Nik norbaiti esaten badiot: «Zer moduz zaudete? Politza da zure jantzia!», eta gero gaineratzen badiot: «Kontent egon zaitezten esaten dizut hori»; baieztapen batzuei buruzko beste baieztapen bat egiten dut, hau da, metakomunikatu egiten naiz. Metakomunikazioaren bidez, beste mezu batzuen zentzua zehazten dugu. Adibidez, lanetik etxera etorri da emaztea eta senarra nobela bat irakurtzen ari da; emaztearen agurrari ez dio ia jaramonik ere egiten. Gero, irakurketa amaitu duenean, elaberria oso interesgarria eta suspense handikoa zela eta horregatik ez diola jaramonik egin esaten dio. Honelako metakomunikazio batek aurretiko mezuak konkatu edo sailkatu egiten ditu; bidalitako mezuak non kokatu behar diren eta nola sailkatu behar diren esaten du. Metakomunikazio motak dira, adibidez, «bromatan ari nintzen» edo «hau ohar bat da» esatea, edo norbaiti zerbait esan eta hirugarren bati keinu egitea.

Egoki metakomunikatzeko gaitasuna komunikazio eraginkor baterako noraezko baldintza da, eta estuki loturik dago norbere buruaren edo bestearen pertzepzioarekin. Metakomunikatzen jakitea beharrezkoa da harremanak ongi joan daitezen, baina ez da beti erraza bi komunikazio mailak bereiztea; gainera, metakomunikazioak ez ditu gatazka guztiak konpontzen. Esandakolari buruz distantzia hartzea eskatzen du metakomunikazioak; metakomunikazioaren edukia elkarreraginari dagokiona izaten da; baina beste maila logiko batean jartzea eskatzen du, harremanetarako arauen mailan jartzea, hain zuzen ere. Sarritan, solaskideak ez du metakomunikazio mailako adierazpen bat metakomunikazio bezala ulertzen, edo ez du nahi izaten besteak bere harremanen kontrola har dezan. Horrelakoetan, gatazkarako baldintzak emanak daude.

4. Komunikazio guztiak dituzte eduki alderdia eta harreman alderdia. Bigarrenak lehena baldintzatzen du. Adibidez, aditu talde bat arazo bat konpondu nahirik eztabaidan ari da enpresa batean eta praktikak egitera etorri berria den batek soluziobide bat proposatzen du. Besteek ez dute ontzat hartuko, onarpenak praktiketako langilea berdintzat hartzea suposatuko bailuke.

Ikus dezagun Watzlawickek dakarren beste adibide hau: Bikote bat terapia saio batean dago eta gertaera honen berri ematen du. Senarra etxean bakarrik dagoela, urruneko lagun baten deia jasotzen du, eta hirira egun batzuetarako datorrela esaten dio. Senarrak bere etxera gonbidatzen du laguna egun horietarako; baina, emaztea itzultzean, eztabaida gogor bati ekiten diote senar-emazteek. Arazoa aztertzen da terapia saioan, eta senar-emazteak ados

daude gonbitea egokitzat jotzeari buruz; desadostasuna beste maila batekoa da:

*«Bi arazo agertzen dira eztabaida honetan. Bata, situazio espezifiko bateko jokoaren segida egokiari dagokiona eta digitalki komunika daitekeena. Bestea, komunikatzaileen arteko harremanari dagokiona (besteari kontsultatu gabe ekimena hartzeko eskubidea nori dagokion), eta modu digitalean hain errazki ebatz ezin daitekeena, harremanari buruz hitz egiteko senarraren eta emaztearen gaitasuna aurreuposatzen baitu. Problema ebazteko ahaleaginean, komunikazioaren sarritan gertatzen den hutsegite bat egin zuen bikoteak: metakomunikazioaren mailan (harremanen mailan) zeukaten desadostasuna, edukiaren mailan konpondu nahi zuten, hots, desadostasunik ez zegoen tokian. Horrek sasi-akordioetara eramaten zituen» (Watzlawick, 1963:80).*

Edukiaren alderdien eta harreman alderdien arloan gerta daitezkeen nahasmenduak aztertu baino lehen, bi maila ezberdinen arteko konbinaketa posibleak aztertzen ditu Watzlawickek:

1. Kasurik onenean, bai komunikazioaren edukiari dagokionean, bai komunikazioan planteatzen den harremanaren definizioari dagokionean ados daude partaideak.

2. Kasurik txarrean, desadostasuna dago partaideen artean, bai edukiari buruz, bai harremanari buruz.

3. Ertzeko bi kasu hauen tarteko konbinazioak ere agertzen dira:

3.1. Partaideak edukiari dagokionean ados ez egon arren, harreman mailan ongi konpontzen dira. Eduki mailako desadostasun bat maneiatzeko modurik egokiena haxe izan daiteke. Adibidez: bikote bateko kide bat «Real» zalea da eta bestea «Athletic» zalea; biek ikurrina ezberdina daramate derbyra, baina elkarrekin adiskidetasunean afaltzen dute.

3.2. Partaideek edukiari buruzko adostasuna badute, baina harremanaren mailan desadostasuna da nagusi. Edukiari buruzko interes berbera edukitzeak elkartzen ditu. Ondorenez, edukiari buruzko adostasuna desagertzean, harremanaren egonkortasuna oso mehatxatua gerta liteke. Adibidez, elkarrekin negozio bat duten soziologunek negozioa bien interesekoa den bitartean elkarrekin jarraituko dute, nahiz eta beren arteko harremanak kaxkarrak izan. Interes bateratzaileak desagertzean, etendura gauzatuko da. Adibidez, ezkontide askok elkarrekin bizitzen jarraitzen dute, helburu batzuk lortzeko elkarrekin ahalegintzera eta elkar sostengatzera behartzen dituen situazioak irauten duen bitartean; situazio hori desagertzean, haustura agertzen da. Adibidez, oinarrian uztarrezinak diren ideologietako aliatuek fronte batean elkarturik jarraituko dute, diktadura anker baten kontra elkarturik borroka egin beharrean aurkitzen diren bitartean; guztientzat mehatxagarri den agintaria desagertzean, tirabirak eta hausturak agertuko dira. Beste adibide bat: familia bateko paziente izendatuak hobekuntza bat egiten duenean, familiako oreka homeostatikoa desagertu egiten da.

3.3. Beste situazio bat eduki eta harreman mailen nahasmendutik sortzen dena da; harreman mailako arazo bat edukiaren mailan konpondu nahi izateak sortarazten du. Horrelako egoera bat gertatzen da, eduki mailan desados dagoen bikote bateko kide bat honela mintzatzen denean: «maite baninduzu, ez ninduzuke kontraesango». Honela dio Watzlawickek: «situazio batzuetan, edukiaren mailako bere pertzepzioez zalantza egitera behartua dago pertsona bat, beste pertsona batekiko harreman oso garrantzitsu bat arriskuan ez jartzeko. Honek, komunikazio paradoxikoaren araberrako jokamoldeetara darama» (Watzlawick, 1963:82-83).

Desadostasuna komunikazioaren edozein mailatan gerta daiteke, eta maila batean gertatzen denak badu zerikusia bestean gertatzen denarekin. Adibidez, «Sudan hiriburua Khartum da» baieztapenarekiko eztabaida eta desadostasuna baldin badago bi lagunen artean, desadostasun hori mapa bat kontsultatuz argi liteke. Atlas batean begiratuta jakin dezakegu baieztapen hori egia den ala ez. Baina, bi lagun horien arteko desadostasuna, edukiari buruzkoa izan ordez, harremanari buruzkoa bada, bietako bati arrazoia emateak ez du arazo konponduko; leundu ordez, zorrotz egin dezake beren arteko etsaitasuna. Atlas kontsultatzeak eduki mailako desadostasuna ezabatuko du, baina harreman mailako problema handiagotu lezake. Problema berri hau ebatzi nahi badute, ezin jarrai dezakete Sudaneko hiriburuari buruz hitz egiten; beren buruaz eta beren arteko harremanez hitz egiten hasi behar dute.

Harremanez ari direla, berriz, simetria terminotan edo osagarritasun terminotan definitu behar dute beren harremana. Adibidez, oker zegoenak bestearekiko lilura senti lezake bere ezagutza handiagogatik, edo gaizki sentitu ere egin liteke, haren nagusitasunagatik eraman ezinik; gaizki sentitzen bada, lehen aukera datorkionean harekiko nagusitasuna edo berdintasuna lortzen saiatuko da.

Harreman mailako desadostasunak edukiaren mailakoak baino garrantzitsuagoak dira. Harremanetan ongi eta edukiari buruz gaizki konpontzen direnak elkarrekin hobeto konpontzen dira, edukiari buruz ongi eta harremanetan gaizki konpontzen direnak baino.

4. Harremanaren maila berez da garrantzitsua, eta edukiaren maila harremanaren maila ziurtatzeko aitzakia bakarrik izaten da sarritan: «Harreman-maila honetan pertsonak ez dute ezer komunikatzen beren harremanaz kanpoko gertaerei buruz; harreman horren definizioak elkarri proposatzen dizkiote, eta inplikazioz, beren buruaren definizioak ere bai» (Watzlawick, 1963:85). Pertsonak elkarrekin hitz egiten dutenean eta ideiak elkartrukatzen dituztenean, elkartrukaketa horren egitekoa norbere kontzeptua etengabe berreraikitzea izaten da. Elkarriketan ari garenean, geure buruaren aurkezpen bat egiten diogu solaskideari, hark aurkezpen hori onetsi edo bazter dezan. Autokontzeptua etengabe elikatu eta berreraiki behar den zerbait da, pertsona bezala bizi nahi badugu; eta elikadura hori komunikazioaren bidez egiten da. Adibidez: A solaskideak B solaskideari bere buruaren aurkezpen bat egiten dio. Edo-

zein dela ere komunikazioaren edukia, metakomunikazioak mezu hau darma: «Honela dakusat neure burua». A-ren aurkezpen horren aurrean, hiru jarrera ezberdin har ditzake B-k:

1. Aurkezpenaren onarpena: B-ren hautemateak A-ren autopertzepzioa egiaztatu edo konfirmatu egiten du. A-k bere buruaz duen ikuskera hau B-k baieztatzea oso garrantzitsua da A-ren garapenerako eta egonkortasunerako. Watzlawickek dioen bezala, gure komunikazio elkarreragin askoren helburua ez da informazioaren elkartrukea, geure autokontzeptuaren onarpena ziurtatzea baizik.

Pertsonen elkarren bereizgarri eta gaitasunak sendotu beharra dute. Elkar sendotzeko behar hori asetzen ez duen gizartea ez da benetako gizartea. Alde batetik, gizaki guztiek dute diren bezala eta izatera hel daitezkeen bezala onartuak eta ezagutuak izateko desira. Bestalde, gizakiak badu berezko gaitasuna bere kideen onarpen eta ezagumendu premia hori asetzeko. Gaitasun hori baztertua duen gizartea ahuldua dago; benetako gizartea, gaitasun hori garatzen duena izango da.

2. Aurkezpenaren bazterketa edo onarpen mugatua. Aurkezten den pertsonaren errealitatea ez du ukatzen, baina bere buruaz aurkezten duen autokontzeptua edo autopertzepzioa ukatu egiten du. A-k bere buruaz proposatzen duen kontzeptua baztertu egiten du B-k. Baztertzen denaren onarpen mugatua aurreuposatzen du, ez baitu ukatzen A-k bere buruaz egiten duen definizioa. Bazterketa mota batzuek, gainera, eraikorrak izan daitezke. Adibidez, lagun batek ez du onartzen beste batek bere buruaz egiten dion aurkezpen harropuzta. Egoera hau sarritan gertatzen da terapia egoeran, egoeraren kontrola bereganatzeko asmoz pazientek aurkezten duen bere buruaren definizioa psikiatrak onartzen ez duenean.

3. Aurkezpenaren deskonfirmazioa: aurkezten denaren aurrean indiferentziaz jokatzeko; hauteman ez duenarena edo ez-ikusia egiten du. Ez du ezer esaten aurkezpenaren egiazkotasunaz edo faltsutasunaz; aurkezpena bera ukitzen du. Informazio iturriaren izana ukatzen da. Ez du «erratia zaude» adierazi nahi, baizik «zu ez zara existitzen».

Hirugarren jarrera hau oso garrantzitsua da ikuspegi pragmatikotik eta psikopatologiaren ikuspegitik. Izan ere, Watzlawickek William Jamesen idatzia aipatuz esaten duen bezala, gizakiarentzat ezin asma omen liteke zigor ikaragarriagorik, fisikoki posible balitz ere, gizarteko kideen artean erabat desapertzibitua pasaratzea baino. Horrelako situazio batek norberatasunaren galera lekarke, hots, besterentzea (alienazioa). «*Deskonfirmazioak ez du ukitzen P-k bere buruaz dagien definizioaren egitasuna edo faltsutasuna, baizik definizio iturri bezala P-ren errealitatea ukatzen du*» (Watzlawick, 1963:87). Bazterketa «oker zaude» mezuaren baliokide izango litzatekeen bitartean, deskonfirmazioa «ez zara existitzearen» mezuaren baliokide litzateke.

Honela azaltzen du Watzlawickek metakomunikazioaren mailan gertatzen dena: A-k mezu hau bidaltzen dio B-ri: «Honela dakusat neure burua».

B-ren mezuak darraio: «Honela ikusten zaitut». Mezu honi A-k beste mezu honekin erantzungo dio: «Honela dakusat zuk nakusazula» eta B-k, bere txandan: «Honela dakusat zuk dakusazula nik ikusten zaitudala». Etengabeko eta mugagabeko atzera itzultze bat egin liteke teorian, nahiz eta praktikan hain mezu abstrakturik ez erabili. Edonola ere, mezu konplexuago hauetako edozein ere konfirmatu, baztertu edo deskonfirmatu lezake hartzaileak.

Harremanetako gatazkak gertatzen dira, elkar ulertze arazoak sortzen direnean. Bestearen larruan sartu ezina gertatzen zaigu; bestearikiko mesfidantza eta nahastea nagusitzen dira. Sartzintasun, mesfidantza eta ulertezintasun horiek aurkitzen ditugu gatazkaren iturburuan. Sartzintasuna gainditzea oso zaila gertatzen da, harremanak ez baitira objektiboki hauteman daitezkeen errealitate konkretuak; harremanei buruzko esperientziak, hautemateak eta eraikuntzak subjektiboak eta hipotetikoak dira.

Errealitate objektiboa bihurtu liteke komunikazio digitalaren gai, baina harremanekin ezin dezakegu horrelakorik egin; harremanetan geu gaude implikaturik. Harremanetan, osotasun zabalago baten zati gara eta osotasun hori ezin dezakegu atzeman, begien bidez geure gorputzaren osotasuna ikusi ezin dugun bezala, begiak ere ikusi nahi dugun gorputzaren zati baitira. Watzlawickek arabera, beraz, pertsonarteko hautemate eta esperientziak sartzinak dira, eta esperientzia horiei buruzko itsutasunak harremanetako gatazkara eramaten gaitu.

### *Komunikazio digitala eta analogikoa*

Denbora askoan zehar, komunikazioa aztertu nahi izan denean, hitzari edo komunikazioaren alderdi digitalari eman zaio garrantzia. Gerora, alderdi analogikoa ere hartu da kontuan: gorputz jarrerak, keinuak, ezaugarri paralinguistikoak... Komunikazio oso batek ezaugarri digitalak (hitzak) eta ezaugarri analogikoak (keinuak, jarrerak, paralengoaia) biltzen ditu.

Komunikazio digitala elkartrukeen edukiar dagokiona da; logikaren, kontzientziaren eta adimenaren mailan gertatzen da eta ez-jarraitua da. Komunikazio analogikoa solaskideen arteko harremanari dagokiona da; intuitiboa da eta adimenaren edo borondatearen kontrolari ihes egiten dio.

Informazioaren kodetze analogikoa kantitatean eta neurrian oinarritzen da. Adibidez, tenperaturaren gehikuntza merkurio zutabearen goititzearen bidez agertzen da. Beste adibide bat jartzeko, sentimenduaren goititzea ahots tonua altxatuz edo keinu bortitzak eginez adierazten da. Kodetze analogiko hau, berbazkoa ez den komunikazioaren bezala ager liteke berbazko komunikazioa ere; hizkuntzako metafora eta analogietan ere erabiltzen da; adibidez, udaberriak gaztetasuna adierazten duen bezala, udazkenak zahartzaroa adierazten du.

Kodetze digitala kontaktan oinarritzen da. Hasieratan hatzez kontaktzen zelako deritzo digitala. Informazioa zenbaki bereizietan antzaldatzen du kodeketa digitalak. Nerbio sistemaren kodeketari dagokionez, alde batetik «dena

ala ezerezeko» kodeketa digitala gertatzen da neuronetan. Nerbio sistema zentralereko neuronek informazioaren pakete kuantikoak jasotzen dituzte sinapsien bidez. Sinapsira heltzen direnean, pakete hauek sinapsi ondorengo potentzial kitzikatzaile eta inhibitzaileak ekoizten dituzte; horrela, neuronen deskargak sustatzen edo geldotzen dituzte. Deskarga gertatzean edo ez gertatzean aurkitu behar dugu informazio digital bitarraren oinarria.

Baina, bestalde, hormonen gehikuntzaren edo gutxitzearen arabera gertatzen da neuronen erreakzio atalasearen aldaketa ere; beraz, kodeketa analogikoa ere gertatzen da. Guruin eta hormona sistemaren funtzionamendua ez dago informazioaren digitalizazioan oinarritua. Odolbideetan sustantzia bereziki kantitate ezberdinak askatuz gertatzen da sistema horren komunikazioa. Informazio eramailea odol korronteko sustantzien kontzentrazioa da. Nola-nahi ere, neuronen eta hormonen sistemek elkar osatzen dute eta elkarrengandik dependitzen dute.

Komunikazioaren bi modu oinarritzko hauek «guztia ala ezerezaren» printzipioa darabilten konputadora digitaletan eta errealtatearen simulazio analogikoa darabilten erloju analogikoetan aurki ditzakegu. Lehenengoetan zenbaki moduan prozesatzen dira aginduak, eta elkar-egokitze arbitrarioa dago informazioaren eta adierazpen digitalaren artean. Komunikazio analogikoan, gauza bat errepresentatzeko erabiltzen dugun adierazpenean badago gauzaren antzeko zerbait; honela, gorputz hizkuntza edo zeinuak erabiliz komunikatzen bada atzeritar bat, zerbait uler diezaiokegu, nahiz eta haren hizkuntza tutik ulertu ez.

Giza komunikazioan bi modutara errepresenta ditzakegu objektuak: marrazki baten moduko erreproduzioen bidez edo izenen bidez. Honela, esate baterako, «basurdeak ezkurra jan du» esaldia, marrazki bidez edo hitzaren bidez ager dezakegu. Bi komunikamodu hauek, kodeketa analogiko eta digitalaren kontzeptuen balioak dira. «Basurdea» hitza erabiltzean, harreman arbitrario bat ezartzen da izenaren eta gauza izendatuaren artean. Hitzak zeinu arbitrarioak dira. «Basurde» hitza urdearen antzeko animalia berezi bat izendatzeko erabiltzea, itun semantiko bat besterik ez da, ez baitago antzekotasun objektiborik edo lotura ezinbestekorik hitz horren eta ordezkatzeko duen animalia artean.

Komunikazio analogikoaren barnean, batez ere, hitzezkoa ez den komunikazio motak sartzen dira: jarrerak, keinuak, mimika, ahotsaren tonua, erritmoa, isiltasunak eta abar. Gizakia da komunikamodu analogiko eta digitalak erabiltzeko gai den organismo bakarra. Haurrak eta animaliak komunikazio analogikoarekiko oso sentiberak dira. Adibidez, *Hans* izeneko zaldi kontalariak gaitasun bereziak zituen hautemate subliminalerako; hanka kolpeak emateari noiz utzi behar zion zuzen antzematen zuen, inguruko igurikapenak hautemanez. Era berean, zenbait gizon eta emakume oso trebeak dira beste mezu analogikoak jasotzen. Adibidez, zenbait mus jokalarik oso trebeak dira bestearen mezu subliminalak jasotzen, hots, aurkariak egia noiz esaten duen eta gezurra noiz esaten duen antzematen.

Sarritan desadostasunak agertzen dira guk igortzen dugun mezu digitalaren eta aldi berean bidaltzen dugun mezu analogikoaren artean. Kalean topatu dudana lagun batek «pozten naiz zu ikusteaz» esaten badit, bere gorputzak atzerantz mugimendua egiten duen bitartean, mezu kontraesankorra bidaltzen ari zait: hitzez gauza bat esaten dit, analogikoki kontrakoa adierazten didan bitartean.

Mezu analogikoen materiala guztiz ambigua da; interpretazio digital oso ezberdinetara irekia dago, eta interpretazio ezberdin horiek sarritan uztarrezinak izaten dira. Mezu analogikoaren igorleari berari zaila egiten zaio komunikazio analogikoa hitzetan jartzea. Mezu analogikoaren hartzaileari dago-kionez, berriz, interpretazio arazoa sortzen da. Hartzaileak bat baino gehiago badira, mezuaren esanahiri buruzko eztabaida berehala piztuko da, hartzaile bakoitzak bere digitalizazio berezia egingo baitu. Adibidez, erregali bat egitea komunikazio analogikotzat har liteke. Baina, emailarekiko harremanari buruz duen ikuskeraren arabera, maitasun agerpen bezala, eskupeko bezala, zor baten itzulera bezala edo aitortzezko erruduntasun sentimendu baten agerpen bezala uler lezake hartzaileak erregalia. Edo, komunikazio analogikoaren beste adibide bat honako hau izan liteke: ertzainak kontrolean gelditu duen pertsona bat dardarka eta izerdi hotzetan jartzen da, hitz totelka hasten da eta bere aurpegia zurbildu egiten da; aurpegia zurbiltzea, dardara, transpirazioa eta toteltasuna esanahi digital anitz har ditzaketen komunikamodu analogikoak dira.

Daniele Varéren *The Gate of Happy Sparrows* eleberritik hartutako anekdota bat kontatzen du Watzlawickek: Pekinen bizi den europar bat txineraz idazten ikasten ari da, irakasle txinatar baten laguntzaz. Irakasleak hiru karakterez osatutako esaldi bat itzultzeko eskatzen dio. Europarrak zuzen deszifratzen ditu karaktereak, «borobiltasuna», «eserita» eta «ura» adierazten dutela esanez. Kontzeptu horiek konbinatuz, esaldi bat egiten du eta esanahi hau ematen dio: «Nor bait eserita bainu bat hartzen ari da». Irakasleak mespretxuz begiratu eta esaldiak itsasoko eguzki sarrera bat deskribatzen duela adierazten dio.

Adibide hauetan garbi agertzen denez, mezu analogikoa ambiguoagoa da digitala baino, eta mezu analogiko beraren interpretazio digital ugari egin daitezke. Watzlawickek dioen bezala, «mezu analogikoko materialari (*idazketa txinatarra bezala*), hizkuntza digitalaren morfologi eta sintaxian sartzen diren elementu asko falta zaizkio. Mezu analogikoak hizkuntza digitalera itzultzean, elementu horiek sartu egin behar izaten dira modu intuitibo edo ez hain intuitibo batean, ametsen interpretazioa egiterakoan, ametsaren irudi kaleidoskopikoetan egitura digitala sartzeari beharrezkoa den bezala» (Watzlawick, 1963:97-98).

Araza berarekin topo egiten du terapeutak ere. Sintomen bidezko hizkuntza, sarrirentan, interpretazio ezberdinak eman dakizkiekeen mezu analogikoetan gertatzen da, eta terapeuta trebearen esku egongo da mezuaren interpretazio zuzena egitea: «*Psikoterapia, mezu analogikoaren digitalizazio zuzenaz*

eta zuzentzaileaz arduratzen da. Interpretazioaren arrakasta, batetik bestera-ko itzulpena egiteko terapeutak duen gaitasunaren menpe dago, eta baita, pa-zienteak bere digitalizazioa modu egokiago batez eta modu ez hain larritzai-lez egiteko duen jarreraren menpe ere» (Watzlawick, 1963:98).

Batesonen arabera, komunikamodu batetik bestera igarotzerakoan egiten den beste hutsegite bat mezu analogikoa berez baieztatzaileria edo denotatiboa dela suposatzea da. Baina, badira arazoak hori horrela ez dela pentsatzeko. Animaliak mehatxu keinu bat egiten duenean, mezu-hartzaileak pentsa deza-ke jokaera hori indar- agerpen bat edo borrokarako gogoaren erakustaldi bat dela, baina ondorio hori ez zegoen jatorrizko mezuan bildua, mezua bera ez baita baieztatzaileria edo denotatiboa. Hobe litzateke, beraz, mezu analogikoa mandu digitaleko proposamen edo galdera bat bezala hartzea.

Zentzu honetan, Watzlawicken arabera, mezu analogiko guztiek harre- man mailako esanahiak dituzte eta etorkizuneko harreman-arauei buruzko proposamenak dira. Gure jokaeraren bidez, amodioa, gorrotoa edo borroka proposa ditzakegu, baina besteak dira gure proposamenei etorkizuneko esa- nahi jakinak emango dizkietenak. Proposamen analogikoen interpretazio digi- tal hauetatik hainbat eta hainbat harreman gatazka sortzen dira.

Hizkuntza digitala, bere joskera logikoagatik, oso egokia da eduki maila- ko komunikazioetarako. Baina, ez da gauza bera gertatzen mezu analogikoe- kin: «mezu analogikoa hizkuntza digitalera itzultzean, egia- ren funtzio logi- koak sartu behar dira, modu analogikoan horrelakorik ez baitago. Hutsune hori nabaria da ukazioaren kasuan, “ez” digitalaren kidekorik ez baitago han. Beste hitz batzuetan esanda, “erasoko zaitut” mezu analogikoa trans- mititzea erraza den artean, oso zaila da “ez zaitut erasoko” transmititzea» (Watzlawick, 1963:99).

Batesonek animalien arazo hau aztertu zuen eta honetaz jabetu zen: animaliek ukazio bat transmititu nahi dutenean, ukatu nahi duten ekintzaren demostrazioa edo proposamena egiten dutela lehenik, eta gero aurrera era- man gabe uzten dutela. Jokaera interesgarri hau animalien ezezik pertso- nengan ere beha liteke.

Watzlawickek proposatzen duen adibidea nahiko argitzailea da: animalia eta pertsonen artean konfiantzazko erlazioa finkatzeko erabiltzen den komu- nikazio-jarraibide bat behatu da, ukazioaren komunikazio analogikoaren adi- bide ezin hobea dena. Gizakiak bere eskua izurdearen ahoan sartzen du; jaki- na, hagin artean duen eskua hortzakada batez moztu liezaioteko izurdeak. Jokaera horren bidez, konfiantza osoaren mezua bidaltzen dio gizakiak izur- deari. Izurdeak bere sabelaldea, hau da, bere alderik minberagarriena eraku- tsiz erantzuten du, eta horrela itzultzen du bere konfiantza. Izurdearen adibi- dea komunikazio analogikoaren eta digitalaren artean kokaturiko erritoko prozesu bezala interpretatzen du Watzlawickek, analogiazko eta sinbolozko mezuen modu errepikakor eta estilizatuak agertzen baititu.

Era berean, katua bezalako animalia batzuek jarrera osagarri bat hartzen dute harremanetan, ondoren agertuko dugun honen antzeko erritoen bidez:

gazteena delako edo bere lurraldetik at dagoelako katuen hierarkian menpe- koa dena etzanda jartzen da eta bere lepoaldea agerian uzten du; beste katuak lepoko odolbidea zapaltzen dio matrail artean, baina egin zezakeena egin gabe gelditzen da. Harreman mota horren bidez, «ez zaitut erasoko» adieraz- ten dio.

Sexu arloko masokismoaren kasuan ere antzeko mekanismoa aurkitzen dugu. «Ez zaitut suntsituko» mezua ulertzeko, menperakuntzaren eta zigor- ketaren erritoko errepresentazioa eta ukazio analogikoa erabiltzen da; maso- kistak irudikatzen duen bukaera izugarria baino lehen amaitzen dira menpe- rakuntza eta zigorketa. Horrek bere beldur sakonetik askatuko du masokista, denbora baterako behintzat.

Bateson eta Jacksonek sintoma historikoen eraketan kodeketa analogikoak duen garrantzia azpimarratu dute. Kasu honetan, mezu digitalizatuak modu analogikora berrituzten dira. Forma digitalean komunikatu edo metakomu- nikatu ezin duena mezu analogikoaren bidez ematen du historikoak. Antzeko zerbait gertatzen da bi lurralderen artean tentsio handia sortzen denean; ko- munikazio digitalaren beharrik handiena dagoenean, harreman diplomatikoak hautsi eta erakustaldi analogikoetara jotzen da: mobilizapenak, tropen kon- zentrazioak eta beste mezu analogikoak.

#### *Elkarreragin simetrikoa eta osagarria*

Elkarreraginezko edozein egoeratan oreka dinamiko gertatzen da. Egoe- ra dinamiko horretan, batetik, bereizkuntza prozesuak gertatzen dira; beste- tik, bereizkuntza prozesu horren kontra doazen prozesuak agertzen dira. Be- reizkuntza prozesu horiek *zismogenesi* hitzaz bataiatzen ditu Batesonek.

Batesonek gertakari bat behatu zuen Nueva Guineako Iatmul leinuko ki- deen arteko elkarreraginetan. *Naven* liburuan azitertu zuen gertaera hori eta *zismogenesi* deitu zuen. *Naven* (1936) liburua iatmul gizarteko *naven* zere- moniaren aurkezpena eta interpretazioa da. Mozorro-rotutako nerabeek egiten duten errito edo zeremonia bat da *naven*. Zeremonia horren eginkizuna Iat- mul gizarteko zismogenesi indarrei aurre egitea izango da. Zeremonia horre- tan gizonak harrigarriko ekintzak egiten dituzte, emakumeek jarrera beha- tzaile soilak duten artean. Elkar indartzen duten jokaera osagarriak agertzen dituzte. Zismogenesi osagarria ageri da hemen: gizonen arteko jokaera harriga- rriak egiten dituzte emakume behatzaileen aurrean; emakumeek eragin gar- rantzitsua dute haien jokaeran exhibizionistan. Emakumeen jarrera behatzailea mutilen jarrera erakustailaren osagarria da. Zenbat eta elkarreragin gehiago gertatu gizon eta emakumeen artean, gero eta nabarmenagoak izango dira gi- zonen jokaerak, eta gero eta pasiboagoak emakumeen jokaerak. Elkarreragin pilatzaile hauek ohikoak bihurtzen diren neurrian, nortasunaren nahasturak eratorriko dira. Nolanahi ere, mutil eta nesken jantzi eta rol aldaketak ere gertatzen dira.

Iatmultarren gizarteko oreka eta dinamikaren azalpena emateko asmatu zuen *zismogenesi* kontzeptua Batesonek. «*Gizabanakoen arteko elkarreragin jarraituetatik sortutako jokaera-arauen bereizkuntza bat*» bezala ulertu beharko litzateke zismogenesia. Zismogenesiaren adibide bezala har dezakegun honako hau: A gizabanakoa aginte zalea da eta B gizabanakoarekin harremanean hasten denean, honek menpekotasunez erantzuten du; menpekotasunezko erantzun honek A-ren jarrera autoritarioa indartzen du; horrela, elkarrekiko rol osagarriak eratzera eramango dituen elkartrukeak pilatzen dira. Alderantzizko moduan, elkarren arteko lehia etengabera bultzatzen duen prozesu bat ere ikus daiteke: bataren ekintzari ekintza mota berberaz erantzuten dio besteak. Jarreraren berdintasuna eratzten eta gordetzen saiatzen dira. Elkarren jarrerak imitatzen dituzte eta helburu berberen atzetik borrokatzen direnen arteko lehia simetrikoa nagusitzen da.

Elkarreragin osagarriaren egitura honek Iatmul gizartearen suntsipenaren hazia beregan eramango luke, *Naven* zeremoniak prozesu zismogenetiko hau etengo ez balu, nesken eta mutilen rolen eta identitateen aldaketaren bidez. Zeremonia honek talde biei esperientziak kontrastatzeko aukera ematen die; beren burua bestearen identitatearen arabera ikusteko aukera ematen die. Zeremonia honen bidez, bere buruaren alderdi ezkutu eta osagarria ikusten dute.

Zismogenesi simetrikoa: gizabanako baten edo gizatalde baten jokaera beste gizabanako edo beste gizatalde baten jokaeraren isla da. Erasoari eraso, lehiari lehiaz erantzuten zaio. «*Harreman sistema askok, dela gizabanakoen artean, dela gizabanako taldeen artean, aldaketa progresiborako joera agertzen dutela argi dago. Adibidez, A gizabanakok egokitzen hartua den eta kultur aldetik agintezko jokaera-modu bezala ikusia den jokaera-modu bat agertzen badu, B-k hari kultur aldetik menpekotasunezko bezala kontsideratua dagoen jokaera moduarekin erantzuten dion bitartean, probablea da menpekotasunak jokaera autoritario berri bat bultzatzea eta honek menpekotasun berri bat exijitzea. Potentzialki progresiboa den situazio bat topatzen dugu honela, eta jokaera autoritario eta menpekotasunaren gehiegikeriak murgatzeko beste faktoreek eskuhartzen ez badute, A gero eta autoritarioagoa bihurtuko da, B gero eta menpekotago bihurtuko den bitartean; eta aldaketa progresibo hau gertatu da, A eta B gizabanako independenteak izan ala talde osagarrien kide izan.*

*Mota honetako aldaketa progresiboak zismogenesi osagarri bezala deskribatu ditzakegu. Baina, bada gizabanakoen edo gizabanako taldeen harremanen beste jokamodu bat ere aldaketa progresiboaren ernamuina beregan duena. Adibidez, talde baten jokaeraren kulturjokamodua harrokeria baldin bada, situazio lehiakor bat sor daiteke, zinetan harrokeriak harrokeria sortarazten baitu, eta horrela jarraian. Aldaketa progresibo mota hau zismogenesi simetriko deienez gertatzen da» (Bateson, 1958:176-177)*

Deskribaturiko bi jokamoduak elkarreragin simetrikoa eta osagarria deitzen dira. Berdintasunean eta diferentzian oinarritutako harremanak bezala

deskribatu ditzakegu. Elkarreragin osagarriaren kasuan, partaideetako baten jokaerak bestearena osatzen du. Elkarreragin simetrikoaren kasuan, gizabanako baten edo giza-talde baten jokaera beste gizabanako edo giza-taldearen jokaeraren isla da; beren jokaera erreziprokoak berdintzera jotzen dute partaideek. Watzlawickek agertzen duen aksioma honen arabera, beraz, komunikazio elkartruke guztiak simetrikoak edo osagarriak dira, berdintasunean edo diferentzian oinarriturik egotearen arabera.

Simetria eta osagarritasuna ez dira berez onak edo txarrak, normalak edo anormalak. Komunikazio elkarreraginen bi oinarritzko kategoria besterik ez dira. Biak presente egon behar dute, txandakatuz edo eremu desberdinetan eraginez bada ere, biak garrantzitsuak baitira harreman osasungarrietan. Elkarreraginaren jarraibide batek bestea egonkortu dezake, bietako baten nagusigoa gertatzean. Posible da, eta beharrezkoa ere bai, elkarreraginaren partaideak arlo batzuetan simetrikoak eta beste batzuetan konplementarioak erlazionatzea.

Zismogenesi osagarriak simetrikoa neutralizatu egiten du, eta simetrikoak osagarria. Adibidez, zismogenesi osagarriaren arabera kontraste handiegia badago langile eta nagusien artean, denak elkarrekin situazio simetrikoan (futbol edo mus txapelketa bat jokatzeko) jartzea nahikoa da, zismogenesi osagarria neutralizatzeko. Senar-emazte batzuek etsaitasun simetriko handia badute, bietako batek istripu bat edukitzea nahikoa izaten da, osagarritasunezko harremanak agertzeko.

Nolanahi ere, harremanen haustura gerta liteke atzerelikadura positiboan oinarritutako bereizkuntzak pilatzen badira. Horrelako eskalada batek harreman sistema ezandarazi lezake.

*Eskalada simetrikoa:* harreman simetriko guztietan lehia arriskua dago. Elkarreragin simetrikoak egonkortasuna galtzen du, simetriaren eskalada hasten denean: eztabaidak, haserreak, gudak. Elkarreragin simetrikoaren patologia guda batez, dibortzio batez edo zisma batez agertzen da sarritan. «*Harreman simetriko osasuntsu batean partaide bakoitzak bestearen "norberatasuna" onartu behar du; elkarrekiko begirunea eta konfiantza, selfaren konfirmazio errealista eta erreziprokoa behar dira. Harreman simetriko bat erortzen denean, bestearen selfaren baztertzeko gertatzen da, deskonfirmazioa baino gehiago» (Watzlawick, 1963:104).*

*Osagarritasun zurruna:* harreman osagarrietan ere gerta liteke elkar konfirmatze osasungarri eta positiboa. Harreman osagarrien patologiarik begiratzeko badiogu berriz, harreman simetrikoan gertatzen denetik oso desberdina da: selfaren bazterketa baino gehiago deskonfirmazioa eragiten dute harreman osagarriek. Psikopatologiaren ikuspegitik garrantzitsuagoak dira harreman osagarrien ondorenak, harreman simetrikoetako borroka irekiak baino.

Harreman osagarrien arazo bereizgarria, honela deskribatzen du Watzlawickek: «*Jonek bere buruaz ematen duen definizioa konfirmatzeko eskatzen dio Xabierri; baina, definizio hori ez dator bat Xabierrek Joni buruz duen iritziarekin. Dilema batean gertatzen da Xabier, bere buruaren definizioa aldatu egin beharko bailuke, P osatu eta haren definizioa egiaztatzeko. Izan*

ere, harreman osagarrien izaerari baitagokio, selfaren definizio bat mantentzeko beste partaideak rol berezi osagarria betetzea. Azken finean, amarik ezin daiteke egon semerik gabe. Baina, ama eta haurraren arteko harreman motak aldatu egiten dira denborarekin» (Watzlawick, 1963:105). Harremanen jarraibide bera selfaren konfirmatzaile izan daiteke une batean, eta deskonfirmatzaile beste une batean. Harreman osagarrien patologia arreta gehiago eskatu du literaturan, simetrikoak baino. Psikoanalisiak harreman sadomasokista bezala deskribatu ditu, eta psikiatriak, «folie à deux» edo «déliire à deux» bezala.

Watzlawickek dioen bezala, harreman simetriko eta osagarrien jokamoduak elkar egonkortu eta orekatzen dute, eta modu batetik besterako iragaitzak mekanismo homeostatiko garrantzitsuak dira. Teorikoki, terapian aldaketa bat eragin daiteke, osagarritasunean simetria eta simetrian osagarritasuna sartzen bada. Harreman osasungarrietan simetriatik osagarritasunerako eta osagarritasunetik simetriarako iragate espontaneoak gertatzen dira.

#### 4.2. Komunikazio paradoxikoa

##### Definizioa

Komunikazio paradoxikoaren kontzeptua paradigma sistemikoaren barnean kokatu behar da. Giza komunikazio gehienak konplexuak dira, mezu eta helburu ezberdinak (batzuetan kontraesankorrak) biltzen dituzte beren baitan.

Watzlawicken arabera (1972), giza-komunikazioaren pragmatikan paradoxa bat sartzeko modu eskuarrena injonkzioa edo agindu kontraesankorra da; berezkoa eta espontaneoak izan behar lukeen jokaera bat exijitzean datza injonkzioa: «izan zaitez espontaneo», «galeraztea galerazia dago», «maitatu egin behar ninduzuke», «izan zaitez aske eta independentea». Edozer egiten duela ere, obeditzeko desobeditu egin behar du agindu hori jasotzen duenak.

Giza komunikazioak alderdi digitala eta analogikoa ditu, eta aspektu bion artean sarritan kontraesana ematen da. Nirekin topo egiten duen pertsonak esaten badit: «pozten naiz zu ikusteaz», bere gorputzak atzeraka egiten duen bitartean, digitalki zerbait positiboa esaten dit eta analogikoki ukatu egiten du ahoz esaten didana. Komunikazio paradoxiko bat bidaltzen dit, digitala eta analogikoa kontraesanean baitaude. Paralengoaiaren bidez, hitzez esaten duen horretan subjektu bat zenbateraino inplikatzeko den nabari dezakegu.

«Premisa kongruenteetatik abiatutik egindako dedukzio batetik jalgitzen den kontraesana» bezala definitzen du Watzlawickek paradoxa. Definizio honek at uzten ditu arrazoiaren hutsune ezkutu batean edo argudio falaziatsu batean oinarrituriko «paradoxa faltsuak». «Baina, definizioa bera nahiko lausotsua gertatzen da, paradoxak paradoxa errealean eta faltsuetan zatitzea erlatiboa baita. Gaur egun premisa kongruenteak direnak, bihar hu-